

## Saxophone Summit, uztailaren 22an Trinitate plazan

- Taldea luxuzkoa da: Dave Liebman, Joe Lovano, Greg Osby, Phil Markowitz, Cecil McBee eta Billy Hart
- John Medeski's Mad Skillet-ek ez du Europako birarik egingo eta talde horren ordeztuz datoz

Saxophone Summit 52. Heineken Jazzaldiaren egitaraura gehitu dugu. Musikari izugarriek osatutako seikotea da, ohiz kanpoko hiru saxofonista ditu, eta arlo erritmikoan forman daude. Trinitate plazan igoko dira taula gainera, uztailaren 22an, 21:00etan.

John Medeski's Mad Skillet-en tokia beteko du bigarren taldeak, azkenean Europako birarik ez baitu egingo lehenak. Konpromiso guztiak bertan behera utzi ditu.

Trinitate plazako saio hori bikoitza izango da, eta bigarren zatian Charles Lloyd izango dugu, beste aparteko banda bat.

Dagoeneko sarrera erosita zutenek eta aldaketarekin ados daudenek ez dute ezer egin behar. Sarreraren dirua itzultzea nahi dutenek, aldiz, Victoria Eugenia Antzokiko leihatilatik pasatu behar dute, edota [infojazz@donostia.eus](mailto:infojazz@donostia.eus) helbidera idatzi.

### Saxophone Summit

**Dave Liebman** (saxo tenorea, saxo sopranoa), **Joe Lovano** (saxo tenorea, klarinete altua), **Greg Osby** (saxo altua), **Phil Markowitz** (teklatuak), **Cecil McBee** (kontrabaxua), **Billy Hart** (bateria).

*DownBeat* aldizkariaren iritziz, Dave Liebman "musika garaikidearen saxofonista garrantzitsuenetakoa da". 2011. urtean, Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak jazz musikariei emandako sari gorenarekin omendu zuen: National Endowment for the Arts Jazz Master-arekin, alegia. Joe Lovano "egungo saxofonista kreatiboenetakoa da" *Boston Globe*-ren arabera, eta Greg Osbyk ibilbide luzea du lider zein laguntzaile gisa. Forman dagoen hirukote batekin osatzen dute taldea, bi legendarekin: Billy Hart bateria eta Cecil McBee kontrabaxua.

John Coltrane-ren azken garaiko musika aborrotzen du Saxophone Summit-ek. Heriotza goiztiarra izan zen Coltrane-rena, eta azken urteetan melodia ederrak eta lirikoak konposatu zituen, taldearekin praktikatzeko zuten *free* inprobisazioan disolbatzen zirenak. Garai hori ez da behar bezala esploratu, ez eta behar bezainbeste baloratu.



Donostia  
SAN SEBASTIÁN  
Uetaila / Julio / July  
20-25 2017

### **Charles Lloyd New Quartet**

**Charles Lloyd** (saxoa), **Gerald Clayton** (pianoa), **Reuben Rogers** (kontrabaxua), **Eric Harland** (bateria).

Saxo tenorraren elezaharretako bat da Charles Lloyd, ibilbide bakana izan duena azken hamarraldiotako lehen mailako saxofonisten artean. Lloydek iragan argitsua du. 1965ean, laukotea osatu zuen Keith Jarrett, Jack DeJohnette eta Cecil McBee-rekin batera, artean ezezagunak ziren artista handi horien aurkezpen lanak egiten zituela. Hark argitaratutako *Forest Flower: Live at Monterrey* diskoa izan zen milioi bat kopiatik gora saldu zituen jazzeko lehen grabazioetako bat. 1967an, *DownBeat* aldizkariak urteko jazz artista aukeratu zuen. Baina Lloydek ez dio iraganari begiratzen, orainaldiari baizik. Eta kritika espezializatua bat dator dienean bere ibilbideko unerik gozoenean dagoela, dotoreziaz, intentsitatez eta pasioz blaitutako kontzertuak eskaintzen baititu.

### **Heineken Jazzaldia Spotify zerrenda ofiziala**

Heineken Jazzaldia 2017 playlist-ean ( <https://play.spotify.com/user/mmartin2009/playlist/7uVIwKyrAYQ8KgCjM2O7ZH> ) entzun dezakezue jaialdian parte hartuko duten artista guztien musika. Zerrenda hori erabilgarria da hedabideentzat, bereziki ikus-entzunezkoentzat, baina baita publiko osoarentzat ere.

### **Sarrera salmenta**

52 Heineken Jazzaldirako sarrerak hurrengo webguneetan eros ditzakezue: [Heineken Jazzaldia](#) eta [Donostia Kultura](#).